

Garapen terminoa eboluzioaren sinonimoa da, aurrerabidearena... eta, oraingoan, Arizmendiarrietak aldarrikatzen zuen **garapen komunitarioa** aipatzen dugu, bere proiektu kooperatiboaren xede moduan ezartzen zuen eraldaketa sozialetik hain hurbil. Garapena, zertarako?

369. gogoeta irakurrita, ondorioztatu daiteke Jose Maria jaunaren “kezka” hurbilekotik edo gertukotik harantzago zihoala, Garapen Komunitarioari buruz hausnarketa eginez, Unibertsalera proiektatuta.
Zer gertatu zaio gizaki modernoari, gauza harrigarriak egin eta naturan horrenbeste indar askatu ondoren, gero ez badaki indarrok mendean edukitzen eta gizakia bera bada bere obraren lehen biktima?
Gure zibilizazioaren lehen biktima gizakia bera da, ezin dituelarik naturaren indarrak menderatu eta eutsi.

Hirurogeiko hamarkadan idatzita, gaur iragarletzat jo daiteke.

Hau da gogoeta:

Erdi Aroko legenda baten arabera, bazegoen azti bat sorginak edo maitagarriak hazteko zeregin zailean trebea zena. Sorgin horiek, gero, denetariko gauza zoragarriak egiten eta denetariko trebetasunak erakusten zituzten. Arte hura ikasi nahi zuen mutil bat aztiarengana jo zuen jakin-minez, eta eskatu zion sekretua erakusteko. Hala egin zuen eta maitagarriak egiten ikasi zuen, baina deskuidatu egin zen, maitagarriei bere borondateari lotuta eusteko sekretua ahaztu zitzaion eta. Behin azti mutilaren eskuetatik libre, maitagarriak erabat aske eta lokabe ibili ziren. Eta, zer gertatu zen? Maitagarriek, besterik gabe, beren egilea akabatu zuten eta azti mutila bere seme-alaben trebetasunaren eta antzearen pean hil zen.

Zer gertatu zaio, bada, gizaki modernoari, gauza harrigarriak egiten ikasi eta horrenbeste natura indar askatu ondoren, gero ez badaki indarrok mendean edukitzen eta gizakia bera bada bere obraren lehen biktima? Izan ere, gure zibilizazioaren lehenengo biktima, zibilizazioa naturaren indarrak mendean eustetik abiatuta gauzatzen ez denean, gizakia bera da eta! p369

Grapenari lotutako beste gogoeta batzuk:

Orain arte herriari egin diogun ekarpena esperientzia kooperatibo hau izan bada, hemendik aurrera garapen komunitarioa eskaini beharko genioke, baina arduraz eta koherentziaz. p126

Ez da ona, ezin daiteke ona izan, iraultza edo gestio eraldatzailea, baldin eta horretan hasteko geure burua hankak eta eskuak lotuta ematea exijitzen eta inposatzen bazaigu, hau da, askatasun, duintasun edo parte hartze hipotekekin. Berreskuratzeko promesekin, jakina, baina gure zalantzak inork desegin ahal izan gabe hala egin ezean. p373

Gaur egun, ez badiegu gure ingurua garatzeko eskakizunei oraingo beharrei bezainbeste begiratzen, porrotera kondenatuta egongo gara. p425

Gizarte hau ez da bat-bateko fruitua, ez da eginda dagoen errealitate bat, baizik eta, alderantziz, giza izaeratik eta etengabeko eginkizunetik sortzen den natura bat da, pertsonen etengabeko eraikuntza.

C15-1961/11

Egunetik egunera gero eta errazago ordezten dira lanerako indar muskularra edo fisikoa baino ez duten pertsonak. Hain zuzen ere, aurrera egiteak esan nahi du gero eta morroi mekaniko eta tekniko gehiago sortzea, horietarako mota guztietako energi iturriak erabiliz. Arrazoi horregatik beragatik, egunetik egunera gero eta peoi gutxiago eta langile tekniko gehiago behar dira. Egunetik egunera gero eta lan intelektualeko portzentaje handiagoa behar da. Gure pertsona morroi mekaniko konplexuagoak eta ugariagoak gobernatzera deituta dago.

C17-1962/01

Dilema zaila, gure gizarteari aurkezten zaiona. Kontsumoaren austeritaterik gabe benetako garapenik ez dela egongo jakitea, eta konforterako nahia unibertsal bihurtu den garai batean bizi behar izatea, zeinean gutxik baitute horiei entzungor egiteko eta inguruko korrontearen aurka joateko behar besteko indarrik.

C37- 1963/09